

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARAMAIOKO UDALA

2024ko lehen hiruhilekoari dagokion etxerako ur hornidura, estolderia eta zabor bilketa zerbitzuaren tasaren errolda, jendaurreko erakusketa eta ordainaldia

Etixerako ur hornidura, estolderia eta zabor biletako zerbitzuaren tasaren errolda, 2024ko lehen hiruhilekoari dagokiona, jendaurrean jartzen da, iragarki hau ALHAOn argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasi eta 15 laneguneko epe barruan interesdunek aztertu eta egokitzen jotzen dituzten erreklamazioak udal bulegoetan aurkeztu ahal izateko.

Aipatutako epean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, errolda behin-betirako onartuko da.

Erreziboak ordaintzeko epea, lekuak eta medioak ondokoak dira:

Epea: 2024ko maiatzaren 28tik 2024ko uztailaren 28ra, biak barne.

Helbideratutako erreziboak, baimendutako finantza erakundeetan eta zergapekoak agintutako kontu korrontean zordunduko dira egun honetan: 2024ko uztailaren 8an.

Helbideratu gabeko erreziboak, ostera, zergapekoak adierazitako zerga-helbideetara bidaliko ditugu, eta Udalak dauzkan finantza entitate kolaboratzaileetako bulegoetan (Kutxabank eta Laboral Kutxa) egin beharko da ordainketa. Agiri hori eskura eduki ezean edo 2024ko ekainaren 28an agiri hori jaso ez bada, udaletxean, bulego orduetan, eskatuko du agiria, borondatezko ordainketa aldian.

Borondatezko epean zorra ordaintzen ez bada, premiamendu prozedura betearazleari ekingo zaio eta fase horri dagozkion errekarguak, berandutze interesak, eta hala badagokio, kostuak gehituko zaizkio hasiera zenbatekoari.

Aramaion, 2024ko apirilaren 24an

Alkatea

ASIER AGIRRE MUGARTZA